

IZENPE, SAren zuzendaritzaren helburu nagusietako bat da enpresa osatzen duten pertsona guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzea, baita enpresaren ondasunak eta bertako produktuak zaintzea ere, era horretan, lan-jarduera baldintza seguru eta lehiakorretan garatzeko. Era berean, 54/2003 Legearen bidez aldatutako Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea onartzeko eta egunean edukitzeko **konpromisoa** hartzen du, baita gai honetan enpresaren jardueretan eragina duten laneko legeak eta araudiak ere.

Hori lortzeko, enpresak **Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Kudeaketa Integratuko Sistema** bat abian jartzeko konpromisoa hartzen du. Sistema horren bitartez, laneko istripuen prebentzioa lortu nahi da. Horrela, **etengabeko hobekuntzaren** printzipioan oinarrituta, teknika egokiak aplikatuko dira eta beharrezko ekintza zuzentzaile posibleak ezarriko dira arrisku-egoerak eta hauen jatorria atzemateko. Era horretan, lesioez gain, langileek normalean erabiltzen dituzten materialen galera (instalazioak, makinak, produktua, etab.) ere murriztuko da.

Hala ulertutako Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Kudeaketa Integratuko Sistema **guztion zeregina** da. Kudeatzailea izango da bertako buru, eta langileek agintzen dizkieten laneko jarraibide guztiak eta hobekuntza posibleak bete beharko dituzte, lanpostuak gero eta seguruagoak egiteko.

Enpresaren arduradun nagusi naizen aldetik, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Kudeaketa Integratuko Sistemak ondo funtzionatzeko **beharrezkoak** eta egokiak diren **baliabideak** jartzeko, langile guztiei **helarazteko** eta haiek bete daitezen eskatzeko konpromisoa hartzen dut. Eta horretarako, enpresa osatzen dugun pertsona guztien laguntza izango dudala ez dut zalantzan jartzen.

Zuzendari Nagusia
Izaskun Urrestarazu

Bilbon, 2016ko uztailaren 11an